

LITERATURA



“ORTZADAR” Bilduma

Euskal Kultur Ondarea denontzat egokitu.

Gai bakoitza berezilari onenetakoei antolatu dute.

Arlo bakoitzak bere margoa izango du ezaugarritzat.

GIZAKIA
ERLJIOA
HISTORIA
GIZARTEA
ZIENTZIAK
LITERATURA
ARTE EDERRAK

GERO — E
EDICIONES MENSAJERO



Marijane Minaberry

ANTZERKIA IKASETXEAN



Marijane Minaberry

ANTZERKIA IKASETXEAN

GERO 
EDICIONES MENSAJERO

—2495—

Bildumaren Zuzendaria: Ximun Odriozola

AURKIBIDEA

1. Amonaren katua	5
2. Txominen nahigabeak	9
3. Alarguntsaren etxea	13
4. Erregearen semeak	21
5. Eri haundia	27
6. Arantxa, neska panpina	33
7. Laminaren ezkontza	35
8. Enaut eta sagutxo	41
9. Haurra eta txoria	45
10. Nor da astoko?	49

Azala: Alvaro Sánchez

© Marijane Minaberry

© Gero-Mensajero - Sancho de Azpeitia kalea, 2 - 48014 Bilbo
Posta Kutxa 73 - 48080 Bilbo

ISBN: 84-271-1818-X

Legezko Gordailu: BI-1307-93

Fotokonposizioa: KZ - Aita Larrañendi, 3 - 48012 Bilbo

Inprimatzailea: Gestingraf - Cº de Ibarsusi, 3 - 48004 Bilbo

AMONAREN KATUA

(Nexka bat, amona gisan jantzia, ezkerreko aldean. Mutiko bat, sukaldari gisan jantzia, eskubi aldean. Haur kantari multzo bat erdian).

AMONA: (Leihotik ia oihuka). Nork ikusi du nere katu? Nere katu maitea galdu dut. Ez dut inon ikusten.

SUKALDARIA: (Irriz). Hai Hai Hai Hai Amona gaisoak katu galdu duela? Hai Hai Hai Hai

AMONA: Irri egiten duzu, irri! Ala badakizu hartaz zerbait berri?

SUKALDARIA: Hai Hai Hai Hai Ez da denentzat galdua zure katu.

HAUR GUZTIAK KANTUZ:

Leihotik oihuka ari da amona,
Ohoi' batek dio hartua gatu.
Auzo sukaldaria, irri eta farra:
Ez da ez galdua pixixi maitea.
Eta irri tralala... eta trufa?, tralala
Irri trufa, trufa, irri, tralala

AMONA: Ez dala pixixi galdua? Gaizto horrek, zer egin diozu nere katuari?

(1) Ohoia: lapurra

(2) Trufa: iseka

SUKALDARIA: Hai! Hai! Hai! Emaidazu eskupeko on bat eta emango dizut zure katua.

HAUR GUZTIEK KANTUZ:

Diozu pitxixi ez dela galdua,
zuk ote daukazu nonbait hor gordea?
Sukaldariak berriz irri eta trufa,
badut eskupekoa zure katua
Eta irri tralala...

SUKALDARIA: Uhummm. Zer usain goxoa heldu den enesukaldeitik.

Ha. Ha. Ha. Gaixo amona!

AMONA: Ez ahal duzu saltsa on bat egin ene katuarekin?

SUKALDARIA: **(Beti irriz)**. Non duzu ene eskupekoa?

AMONA: Emango dizut ene untxietan³ ederrena.

SUKALDARIA: Behar ote dut sinetsi zuk esana?

HAURREK KANTUZ:

Sukaldeitik heldu usain bat hain ona
Sukaldariak saltsan ote du katua?
Denok bil dezagun harentzat dirua
Amonari itzuli dezaioa katua
Eta dirua, tralala, behar bildu, tralala
Bildu diru, diru bildu, tralala!

SUKALDARIA: Ondo aditu dut haur horiek esana?

AMONA: Zuretzat dute bilduko dirua

SUKALDARIA: **(Buru hazka)**. Eta zuk hitzeman lapina⁴.

AMONA: Zer nahi dituzu, dirua eta... untxia? Zer biligarroa⁵ zu?

ZUKALDARIAK: HOLA DA, AMONA. Emanen dauzut katua, baino zuk ez ahantz ene untxia

HAURREK KANTUZ:

Sukaldariak ona omen du bihotza
Amonari dio emango katua,
Biek dute orain egiten pakea,
Dezagula denok kanta eta dantza,
Eta kanta, tralala, eta dantza tralala
Kanta, dantza, dantza, kanta, tralala.

(Ondar⁶ errepika hortan haurrak dantzatzen ahal dira, eskuetan⁷ joz. Dantzatzen ahal dira ere errepikaren ondar bi lerroetan, aldi oroz).

(3) Untxia: lapina

(4) Lapina: untxia

(5) Biligarroa: bizkorra, maltzurra

(6) Ondar: azken

(7) Eskuetan joz: txalotuz

2

TXOMINEN NAHIGABEAK

(Ama bere semearekin. Haur kantari multzo bat)

TXOMINEK: Ama, asperten⁸ naiz.

AMAK: Beti hola da, zurekin, astezkenetan...

TXOMINEK: Ez dakit zer egin...

AMAK: Nik esanen dizut. Joan zaitez Larrunera. Han pottoka poliena eta tiplena hatzeman behar duzu.

TXOMINEK: Pottoka hatzeman nik? Nola egingo dut?

AMAK: Emango dizut soka gogor bat. Lepotik ezarriko diozu eta gero kraaxtutik⁹ ekarriko duzu. (Txomini lepotik dilindan ezartzen dio soka lodi bat) Horra. Zoaz orain. Kasu¹⁰ egin ezazu, ahatik, minartu gabe. (Txomin atera da).

HAURREK KANTUZ:

Pottoka mendian, jauzika ibilki
Buztana airean, basati¹¹ dirudi
Ezin harrapatuz, Txomin da erori,
pottoka nagusi da gure gizonari

(8) **Asperten**: enoatzen

(9) **Kraaxtutik**: lokarritik

(10) **Kasu**: jaramon

(11) **Basatia**: salbaia

(Kantua bururatzean Txomin sartzen da burua loturaz inguratutik, kopeta tinda¹² gorritz beteta).

AMAK: Baina... maitea! Zer gertatu zaizu?

TXOMINEK: Pottokaren gainera nahi izan dut igon. Lau hatzez putarka¹³ lurrera igorri nau...

AMAK: Esana nizan kraaxtutik ekartzeko. Ai Mutiko txarra, zu. Beti behar ez den hura egin behar.

TXOMINEK: Ez dut anitz¹⁴ min hartu

AMAK: Lepo hezurra hautsi bazenu, ikusiko zenuen. Bestzerik ez bezalako zu!

TXOMINEK: Joanen ahal naiz Potzorekin jostatzerat?

AMAK: Jostatzerat joan baino lehen arratseko kastainak¹⁵ bildu behar dituzu.

TXOMINEK: Non?

AMAK: Xara ondoko gastainapean.

TXOMINEK: Zertara bilduko ditut?

AMAK: Joatean, sarrean, hartuko duzu sare bat.

TXOMIN: Haundia?

AMA: Beterik ekartzen duzunaren ahalekoa. Eta kasu egin nola zabiltzan. (Txomin ateratzen da).

HAURREK KANTUZ:

Gaztainak biltzerat Txomin abiatu,
Xarea harturik, bete behar bait du.
Kormutsak¹⁶ eskuaz hartu nahi ditu
Gaixo mutikoa, hor bait da kolpatu.

(12) Tinda: idaztur

(13) Putarka: osikadaka.

(14) Anitz: asko

(15) Arratsaldeko kastainak: afarirakoak

(16) Kormutsa: kastainen azal arantzatsua

(Kantua bururatzean Txomin sartzen da, eskua lotura zuriz inguratuta).

AMAK: Baaa. Ez da probetxurik. Zer gertatu zaizu berriz orain?

TXOMINEK: Kormutsak nahi nituen eskuarekin ideki eta eri¹⁷ guztiak sistatuak ditut.

AMAK: Arrunt errebesa zera dudarik gabe, haurra.

TXOMINEK: Booo...

AMAK: Zerbait egiteko esaten dizudan guztian minharturik etor behar baduzu, ez dakit ba nik...

TXOMINEK: Lanean ari naizelarik dut bakarrik mina hartzen.

AMAK: Estakuru¹⁸ ona hori lanik ez egiteko. Ekarri duzu gaztainarik batere?

TXOMIN: Sarea beterik.

AMAK: Ondo. Joan ahal zaite orain Potzorekin jostatzerat. (Txomin ateratzen da).

HAURREK KANTUZ:

Potzo gibeletik, Txomin abiatu
Etxeke pentzean¹⁹, beharrez jostatu
Harri kozkor bat du bidean topatu
gure mutikoa hantxe da maingutu²⁰.

(Kantua bururatzean, Txomin sartzen da mainguka, beleuna gorritz tindatuta).

AMAK: Holakorik...! Zer egin duzu berriz orain?

TXOMIN: Potzoren hobena da.

(17) Eri: hatz

(18) Estakuru: aitzaki, alegi

(19) Pentzea: zelaia

(20) Maingutu: erredu, mainguka: errenka

Ama: Gauza ziurra hori. Zer egin dizu? Bultzatu?²¹

Txomin: Haren gibeletik²² lasterka abiatu naiz, harri bat behean topatu eta eroi naiz.

Ama: Ba, ba. Ene semea arrunt errebesa²³ da. Hauxe da hauxe. Zatoz honat amaren altzora. Zure minak hemen sendatuko dira.

(Txomin amaren altzoan jartzen da).

HAURREK KANTUZ:

Amak semetxoa altzoan du hartu,
Txominen zauriak han dira sendatu.
altzoan Txomin da goxatu,
Lagunekin orain behar du kantatu.

(Txomin joaten da lagunetarat eta denak kantu).

Amaren altzoan, zauriak sendatu,
Txominék gurekin egiten du kantu.
Gertakari txarrak ahanztiko²⁴ ditu
Denok elkarrekin gaitzezen alaitu.

Oharra: «Pottoka mendian» kantuaren airean eman behar dira kantu guztiak.

- (21) Zer egin dizu? Bultzatu?: Zer zitu? Pusatu?
(22) Gibeletik: atzetik
(23) Errebesa: makala, trebetasunik gabekoa
(24) Ahanztzi: ahaztu
12.

3

ALARGUNTSAREN ETXEA

(Alarguntsa²⁵ bat bere seme-alabekin. Harakina. Okina. Beste gizon bat. Ama eta alaba sukaldean zerbait ari dira. Leiho bat ageri da).

ALABA: Ama, zangoak elurra bezela ditut.

Ama: Ikusten duzu kanpoan orma hori, haurra... Bazter guztiak xuri-xuriak dira, eta guk sua egiteko egurrik ez.

ALABA: Zergatik ez egurrik?

Ama: Aita hilez gero, ez dut neronek egurrik egin etxe honetan. Eta erosteko dirurik ez dut.

ALABA: Ni joango naiz bila...

Ama: Haur gaixoa zu... Bihotza zabala bezain ahalak haundi bazenitu, ez dut esaten. Oihana uruti da eta egurra zamatsu²⁶.

ALABA: Baita esku orgarekin²⁷ joaten banaiz ere?

Ama: (Amak burua perekatzen²⁸ dio eta musu bat ematen). Badakizu zer egingo duzun?

ALABA: Ez...

- (25) Alarguntsa: senarra hil zaion emakumea
(26) Zamatsu: pisu
(27) Orga: gurdia
(28) Perekatuz: lazlandu

AMA: Pettan okina ikustera joango zara. Galdegingo diozu haren oihanerat joan ahal naizen abar zama baten bila. Adarrak ekar ahal ditut neronek.

ALABA: Neu joango naiz zurekin...

AMA: Ondo da. Zoaz orain.

(Alaba ateratzen da eta semea, jauzika zango baten eta bestearen gainean, sartzen).

SEMEA: Ama, jostatu nahi nuen baina sobera²⁹ hotz dago kanpoan.

AMA: Bai, semetxo... Hotz haundia ari du.

SEMEA: Zergatik ez duzu sua pizten?

AMA: Egurrik ez dutalako.

SEMEA: Zergatik ez duzu egurrik?

AMA: Inor ez dutalako oihanerat joateko.

SEMEA: Ni joango naiz.

AMA: Tipiegi zara, haurra. Battitta okelagilea ikusterat joango zara. Gizon ona da nere ustez. Haren oihanean abar zama hartzen utziko ahal izango gaitu.

SEMEA: Ni joango naiz zurekin.

AMA: Ondo da. Baina lehenik zoaz okelagilea ikustera.

SEMEA: Banoa, ama. **(Ateratzen da eta alaba sartzen).**

ALABA: Ama, Pettan okina ikusi dut.

AMA: Ondo... Eta zer esan dizu?

ALABA: Ez dela haren oihanean abarrik guretzat.

AMA: Maitea...

ALABA: Eta esan dit, hotzak baldin bagaude, aski dugula jauzika egitea berotzeko.

SEMEA: **(Semea sartzen da).** Ama, Battitta okigilea ez da gizon ona.

AMA: Ez? Haurra...

SEMEA: Esan dit haren abarrak ez direla guretzako... Zer uste dugun ala...

AMA: **(Burua higituz)**³⁰. Uste nuen gizon ona zela...

SEMEA: Esan dit aski dugula dantzatzea. Tripa arin delarik erraza dela.

AMA: Daudela beren ontasunekin. Ez da etsitu behar, haurrak. Ziur naiz binotz oneko norbat hatzemango³¹ dugula.

SEMEA: Non?

AMA: Erreka Haundiko Patin herrira etorri berria da. Ez dut ezagutzen, baina goazen bera ikustera. Ale, goazen!

(Hirurak ateratzen dira eta okelagilea eta okigilea sartzen).

BATTITA: Zer diozu, Pettan?

PETTAN: Bagabiltz, bagabiltz... Bizitzekoa egiten dugu, zer bait.

BATTITA: Zerbait gehiago ere bai zalantzarik³² gabe.

PETTAN: Hori... Hortaz mintzo bazera, kontseilu bat galdegin behar dizut.

BATTITA: Esan...

PETTAN: Diru puxka bat banuke nonbaiten sartzeko. Balsa behetik ari dela eta ez dakik non ezar.

BATTITA: Biok gaitz bera dugu beraz... (Biek irri)

(30) Higitu: mugitu

(31) Hatzeman: heldu

(32) Zalantzarik gabe: dudarik gabe

PETTAN: Zuri zer inultitzen zaizu?

BATTITA: Hori... Zerbait gogorat heldu zait... Esan iezadazu Eta bion artean alarguntsaren ontasunak biltzen baditugu? Zer diozu horretaz?

PETTAN: **(Buruari hazka)**. Ez dakit nik hori... Zertatik biziko dira gero?

BATTITA: Hori ez da gure egitekoa.

PETTAN: Funtsean hala da. Ixol Orga karrankak aditzen dituk (leihotik so) Esan iezadazu... So egin ezazu... So egin....

BATTITA: Egurrez zamaturik Karrikaburuko orgak?

PETTAN: Nora ari ote dira?

BATTITA: Ez dakit hori nik... Irudi luke alarguntsaren etxera doazela.

PETTAN: Ba... Hara bertara.

BATTITA: Emakume horrek du kopeta! Ziur naiz eske izan dela.

PETTAN: Ba, ba... ziur. Niri alaba igorri dit egur galdez.

BATTITA: Niri beriz semea.

PETTAN: Esan iezadazu³³... Ondo ikusten du? Egur bakoitza, egurtegira heltzean, urre bilakatzen³⁴ da.

BATTITA: Ezin sinetsia da! Holakorik oraindaino!

PETTAN: Esan iezadazu... Eta gu ere joaten bagera egurketara Erreka Haundira?

BATTITA: Egia diozu... Goazen lasterka. **(Azkar baino azkar ateratzen dira, ama-seme-alabak sartzean)**.

AMA: Jainkoari eskerrak. Erreka Haundi ez dugu ezagutzen eta ikusi duzute zer etorri ona egin digun? Ez da sekulan jendeaz etsitu behar.

SEMEA: Ama, sua nik piztuko dut.

AMA: Ondo da. Guk afari on batentzako behar direnak antolatuko³⁵ ditugu.

ALABA: **(Leihotik so)**. Ama, ama, begira ezazu.... Pettan eta Battita orgak egurrez zamaturik etxera heldu dira.

AMA: Jesus! Ez ahal dira errukiturik gure etxera heldu?

ALABA: Ez, ez. Beren etxerantz hartu dute.

AMA: Banengoen, ba. On egin dezaie! Ez dugu gehiago horien laguntzaren beharrik.

SEMEA: Kruxpetak³⁶ egingo dituzu, ama?

AMA: Gozo zale! Bai, egingo...

SEMEA: Gaur?

AMA: Gaur beranduegi da. Bihar.

ALABA: Neri laranjak erosiko?

AMA: Bai, egingo. **(Helal entzuten da atean)**.

AMA: Antzinako. **(Pettan eta Battita agertzen dira, pildaz³⁷ jantzita)**.

PETTAN ETA BATTITA: Gau on gente onak!

AMA: Bai zuei ere, Jaunak!

PETTAN: Jaunak, ba... Jaun politak, gu. Ikusten duzute gure itxura?

AMA: Zer gertatu zaizute?

(35) Antolatu: epailatu

(36) Kruxpeta: kausera, txigor

(37) Pilda: janzi zaharra

PETTAN: Ezin sinetsia....

BATTITA: Izugarikeri bat...

Ama: Zer ote bada?

PETTAN: Egurketan izan gera Erreka Haundiko oihanean.

Ama: Ba... Ikusi ditugu orgak zuenerantz.

BATTITA: Ahal bezain zamaturik ekarri ditugu etxerat eta...
(Burnari loturik).

Ama: Eta?

PETTAN: Ezin sinestekoa da... Egur bakoitza arratoin bilakatu
zaigu egurtegiat heltzean....

Ama: Arratoin? Oraindik horrelakorik....

BATTITA: Ba, emakume gaisoa, arratoin...

PETTAN: Etxeak, pentzeak³⁸, arto landak, begiak herts-ideki³⁹
artean suntu dituzte.

BATTITA: (Esku gaina laztanduz). Nere esku gaina bezela
muriziturik⁴⁰ ezari.

PETTAN: Soineko pildak gelditzen zaizkigu bakarrik. Ez dakit zer
bilakatuko geran.

Ama: Hasteko eta bat, gurekin egongo zarete. Afari on bat
antolatuko dugu.

SEMEA: Eta nik nere gaitzak utziko dizkiot Pettani. Battitta
lodiegi da.

ALABA: Nik nere ohea utziko eta zurekin lo egingo.

Ama: (Biei musu). Haur onak zarete. (Semeari) Zoaz orain sua
pizteko xixkiten⁴¹ bila. (Alabari) Zuk erakutsi jaun horiei

(38) Pentzea: zelaia

(39) Herts-ideki: laster, biziki azkar

(40) Murizitu: goibeldu, atsekabetu

(41) Xixkita: ezpal, zurizpi

gure ganbarako bidea. Harmairuan hatzemango dituzu
aita zanaren janzkiak gizon horiek alda ditezten.

PETTAN: Ez dugu txanponik zuri ordaintzeko.

Ama: Ez dizuet deus galdegiten. Guk badugu orain guretzako
eta beharrean diren elaguntzeko nahiko ondasun. (Alaba
eta gizonak eteratzen dira).

Ama: Jainkoari esker... Gizonek baino esku zabala goa bait du.

ERREGAAREN SEMEAK

(Errege bat bere hiru semeekin. Bi edo hiru mutil.
Erregetxeko jentek eta morroiak).

(Erregeak txilintxo bat jotzen du. Sartzen da mutil bat.
Dena agur).

MUTILA: Jauna, galdetu nauzu?

ERREGA: Bai, hator nere hiru semeekin.

MUTILA: Banoa, Jauna.

ERREGA: Berehala ikusi nahi ditudala esango diek.

MUTILA: Bai, Jauna. (Ateratzen da. Erregeak txilintxoa jotzen
du. Bigarren morroia agertzen da).

MUTILA: Galdetu nauzu, jauna.

ERREGA: Ba. Ate horren gibelean⁴² iru kutxa ikusiko dituk. Lagun
bat harturik ekar izikidak honarat. (Mutila ateratzen da
eta berriz sartzen lagun batekin kutxa ekariz.)

ERREGA: Kasu⁴³ poliki, kutxa hori urrezkoa bait duk eta ez dik
nola nahi ibili behar. Tokitu ezazue hortxe eta joan
bestearen bila. (Ateratzen dira eta berriz sartu
bigarren kutxarekin).

(42) Gibelean: atzean

(43) Kasu: jaramon egin, kontu egin

ERREGEA: Hau ere ibil poliki inon ere kaskatu gabe. (Bestearen ondoan poliki tokitzen dute).

ERREGEA: Honek ere balio haundia dik, ziliarrezkoa bait duk. Orain ekar ezazue hirugarrena. (Ateratzen dira eta berriz sartzen hirugarren kutxarekin).

ERREGEA: Kasu egin poliki. Hau kontu gehiagorekin ibil oraindik, buztinezkoa bait duk. (Orduan, lehen mutila sartzen da).

Erregea: Bakarrik etorri al haiz?

MUTILA: Ez, jauna. Zure semeak ere hor dira. (Sartzen dira hiru mutiko, aberaski jantzita).

ERREGEA: Al Hor zarete?

LEHEN SEMEA: Galdetu gaituzu, aita?

ERREGEA: Bai, semea.

BIGARREN SEMEA: Zer nahi zenuen, aita?

ERREGEA: Hirurak batean ikusi, irakaspén baliotsu bat emateko.

HIRUGARREN SEMEA: Zuri begi belarri gaude denok, aita.

ERREGEA: Entzun ondo nik esana, seme. Horra hemen hiru kutxa. Zuetariko bakoitzarentzat bat.

LEHEN SEMEA: Eta gero zer?

ERREGEA: Kutxa bakoitzaren barnean baduk ondasun bat gordea zuetako bakoitzarentzako.

BIGARREN SEMEA: Zer egin behar dugu ontasun horretaz jabetzeko?

ERREGEA: (Lehen semeari). Hiri, jauregi honetakolehen semea, lehen hautua⁴⁴. Zein kutxa hautatzen duk?

LEHEN SEMEA: Zalentzarik gabe urrezkoa. Horren masaillean⁴⁵ «erresuma» idatzirik ikusten dut. Oinordeko⁴⁶ gisa, egun batez erresumaren jabe izan nahi dut.

ERREGEA: Ondo duk. Hirea duk urrezko kutxa. Ideki ezak. (Semeak idekitzen du. Oo! egiten eta gibelkada batean kutxa hertsitzen).

ERREGEA: Zer gertatu zaik?

Lehen semea: Kutxa hori odolez betea da.

ERREGEA: Erresuma baten jabe izan nahi duenak anitz odol ixurrezaten dik bere inguruan. Ez dezakala hori sekulan ahantzi⁴⁷.

LEHEN SEMEA: Ez, aita.

ERREGEA: (Bigarren semeari). Orain, hire aldi. Gelditzen diren bi kutxa hoietatik, zein nahi duk?

BIGARREN SEMEA: Ziliarrezkoa, aita, baterezalantzarik gabe. Horren mazaillean «Omena» ikusten dut idatzia. Erresumaren jabe ez bait naiz izango, omen haundiko gizona nahi nuke izan.

ERREGEA: Ongi duk. Hirea duk bigarren kutxa. Ideki ezak. (Bigarren semeak kutxa idekitzen du eta harriturik aitari so egiten dio).

BIGARREN SEMEA: Hautsez betea da, aita.

ERREGEA: Bai, seme, hautsez. Orain arte ere izan duk omen haundiko anitz gizon. Non dira orain? Denak herrauts⁴⁸ bilakatuak⁴⁹. Sekulan ez ahantz hori, seme.

BIGARREN SEMEA: Ongi da, aita.

(45) Masaila: mazelá

(46) Oinordeko: premu, maiorazgoa

(47) Ahantzi: ahaztu

(48) Herrauts: errekin, hauts

(49) Bilakatu: itzuli, bihurtitu

ERREGEA: (Hirugarren semea⁴⁸). Hik ez duk hauturik.

SEMA: Ikusten dut, aita.

ERREGEA: Buztinezko kutxa hori hirea duk.

SEMA: Badakit, aita.

ERREGEA: Ez egon hola ilundurik, seme. Ideki hik ere hire kutxa.

SEMAK: (Semeak idekitzen du eta harriturik aitari). Hutsa da!

ERREGEAK: Hutsa? So egin ezak ondo.

SEMA: Ondoan⁴⁸ zerbait ikusten dut idatzirik.

ERREGEA: Irakur ezak.

SEMA: Askatasuna!

ERREGEA: Bai, seme, askatasuna. Orain sartu dedila ene kortea.

(Sartzen dira denak aberaski jantzita).

ERREGEA: Entzun denak nik orain esana. Horra hemen hiru kutxa. Bat urrezkoa, bestea zilarrezkoa, eta hirugarrena buztinezkoa. Zuen irudiko zein da kutxa horietan baiotsuena!

AHOTTS BATZUK: Lehena, urrezkoa

ERREGEA: Ez, jaunak.

BESTE AHOTSAK: Zilarrezkoa.

ERREGEAK: Ez, jaunak

AHOTTS BATEK: Buztinezkoa, beraz? Ez da izaten ahal.

ERREGEA: (Hirugarren semea⁴⁹). Irakur ezak gora, gora, kutxa horren sabelean zer aurkitu dukan.

SEMA: Kutxa horren zolan⁴⁹ idatzia da hitz bat: askatasuna.

ERREGEA: Bai, jaunak. Askatasuna, erresuma, omena eta ontasun guztiek baino baiotsuagoa da. Sekulan ez ahantiz hori. Entzun nik esana:

Seme, har ezak⁵⁰ gogoan

Beharrena, munduan

Ez dela ontasuna,

Ez eta ere omena.

Denetan beharrena

dela askatasuna.

Bizian, hura gabe

gizona dohakabe⁵¹.

Hona hemen emana

ene irakaspena:

Barne sar bihotzetan,

suzko hitz sarkorretan,

gizonen ontasuna

dela askatasuna.

(Denek erregea agurtzen dute).

(48) Ondoan: zolan, zakondoan

(49) Zolan: ondoan

(50) Har ezak: atxik

(51) Dohakabe: atsekabe, maluros

5 ERI HAUNDIA

(Antzerki tipi hau jadanik⁵² agertua da «Haur antzerki» liburutxoan. Baina zenbait erro luzeegi kausiturik⁵³ haurrek aisa erraiteko⁵⁴, laburtu ditugu, eta haur bat gehiago ezarri jokolarietan).

(Haur bat, kadera⁵⁵ batean, lumaxkaz⁵⁶ inguratua. Gerriko batez estekatua kaderari, zangoak gerriraino estalki batez inguratuak ditu).

AMA: (Lumaxka hauraren inguruan ondo ezariz). Gaixo ene ñimiñoa⁵⁷, zu. Ondo zaude, kadera horretan?

ERIA: Ez izigarri⁵⁸, ez. (Beste haur bat sartzen da).

HAURRA: Ama, gosetu naiz. Noiz izango dut askaria?

AMA: Ez duzu ikusten anaia eri dela? Eta zu askariaz galdezka?

HAURRA: Ikastolara beranduegi joaten bait naiz, andereinoak zigortuko nau.

AMA: Andereinoari nik esango dizkiot bi hitz...

ERIA: (Zinkurinaka, negarti). Ama, ekar iezadazu jatekoa.

(52) Jadanik: lehen

(53) Kausiturik: izanez, izanagatik

(54) Erraitekoa: esatekoa

(55) Kadera: jarlekua

(56) Lumaxka: kuxina

(57) Ñimiñoa: tipi-tipia

(58) Izigarri: hainbeste

AMA: Gosetu zara, haurra? Ekarriko dizut ogia eta selera⁵⁹
Jango duzu ogia eta igali oraska⁶⁰?

ERIA: Ba... Ekariezadazu ogi gutti eta igali oraska asko.

BESTE HAURRA: Ama, nik ere jango dut ogia eta igali oraska?

AMA: Zugoseaz hilgo ote beldur zera. (Eriari). Zaude zu mugitu⁶¹
gabe, ni etorri arte. Entzun? (Burua higituz⁶² eta hats
beherapenka ateratzen da).

HAURRA: (Anaiari). Non duk min?

ERIA: Ez diat inon minik...

HAURRA: Alegia egiten duk ikastolara ez joateko?

ERIA: Ez, ez. Ezin nauk zutik egon.

HAURRA: Zertarako estekatu⁶³ haute horrela?

ERIA: Ez erortzeko.

HAURRA: Nahi dut nik estekatzea? (Ama sartzen da).

AMA: Horra, haurra. Ia zein poliki jaten dozun. (Lepo inguruan
oihalt bat ezartzen dio ez zikintzeko). Kontuz jan ezazu.

HAURRA: Eta nik, ama?

AMA: Zu joan sukaldara. Han jango duzu. (Haurra ateratzen
da).

ERIA: Ez dut nahi ogi eta igali oraska... Goxokiak nahi ditut.

AMA: Goxokiak? Tenore⁶⁴ honetan? Baino, gaisoa... Amak ez
du goxokirik etxean!

ERIA: Nik goxokiak nahi ditut..

(59) Selera: igali edo fruitu oraska

(60) Igali oraska: selera

(61) Mugitu: higitu

(62) Higitu: mugitu

(63) Estekatu: lotu

(64) Tenore: egoera, ordu

AMAK: Bihar ekarriko dizkizu amak Donibaneko azokatik. Orain
ogia eta igali oraska jango duzu, osagilea orain bertan
dator eta. Ia zein poliki jaten duzun... (Haurrak litoika⁶⁵
igali oraska milikatzen du eta ogia uzten). Baino,
haurra...eta ogia?

ERIA: Ogirik ez dut nahi. Sabeleko⁶⁶ mina ematen dit.

AMA: Milikalar haundia zu! Holakorik ez da egiten. Nola egongo
zera zutik ogirik ez baduzu jaten?

BESTE HAURRA: (Beste haurra entzuten da oihuka). Ama, ama,
sendagilea hemen da!

AMA: Sar erazi ezazu! (Haurrari). Sendagilea hemen da! Zintzo
egongo zera, ez? (Atea jotzen dute).

AMA: Sar zaitetz, sar, jauna.

SENDAGILEA: Agur, anderea. Norbaiteridugu etxe honetan? Oso
eri?

AMA: A, jauna! Ez dakit zerk hatzematen gaituen! Mutiko
honentzako galde zaitut.

SENDAGILEA: Zer gertatzen zaio?

AMA: Holakorik ez dut ikusi nere bizitzan. Perlesia aldia ukan du
goizean.

SENDAGILEA: (Harriturik). Perlesia! Zenlako arranoa!

AMA: Bai, jauna. Goizean ikastolara igortzeko jaiki erazi dut.
Ohe gainean jantzi, eta ohetik jautsi erazi.

SENDAGILEA: Ordu arte ondo zena?

AMA: Ba, ba... Baino ohetik jautsi orduko, purti ene mutikoa
lurrera.

SENDAGILEA: Aha...

(65) Litoika: gogotsu

(66) Sabela: tripa

Ama: «Kontuz, ba, haurrai» esaten diot. «Ohe antzinean lerratzen⁶⁷ zera». Eta zutik ezartzen dut.

BESTE HAURRA: **(Atetik burua sartuz)** Ama, askalduna naiz. Banoa ikastolarat.

Ama: Zoaz, ba **(Sendagileari)**. Zutik ezari orduko, purti ene mutikoa berriz lurrerantz.

SENDAGILEA: Hu. hu. Gauza bixia da, bixi.

Ama: Geroztik hona, beiti lurrean, hortxe ezari dut, eror ez dedin, lumaxkaz inguratutik eta estekaturik.

SENDAGILEA: Ikušten dut, ikusten.

Ama: **(Buruari heldutik)**. Jainko onal Zerk hatzematzen gaituen! Zakur mehea dena kukuso...

SENDAGILEA: Ikusiko dugu. He! Soka horiek kenduko dizkiogu. **(Ama sokak lasaitzen ari da)**. Dena dela itxura ederra du. Jan ahal du zerbaiz goiz honetan?

Ama: Ba, ogia eta igali oreska xipi bat jan du. Deus ez gehiago. Bizpahiru egun hauetan itxura txarra bilatzen nion...

SENDAGILEA: Hea, mutil. **(Sabela zakatzuz)**. Min duk sabelean? **(Haurrak buruarekin ez)**. Buruan? **(Buruarekin ez)**. Gose haiz? **(Haurrak buruarekin ez)**. Aha... Mihia ere perlesiatua ote du? Gozokirik nahi al duk?

ERIA: Amak ekarriko dizkit Donibaneko azokatik.

SENDAGILEA: Hiza etorri zaio... Atera mihia hori!... Ondo. **(Belarria bular gainean ezarritz)**. He! Egin ezak ezul... Berriz... Har ezak hatsa. Azkar. Berriz... **(Taupadak hartzen dizkio)**. Bularra eta bihotza ondo ditu. **(Amari)**. Hea. Ezar ezazu haur hori zutik....

Ama: **(Haurrari beso azpietatik lagunduz)**. Ez da ez, arauz, berriz eroriko. **(Zutik ezari orduko haurra lurrera doa)**.

SENDAGILEA: Jes! Hau bixikeria! **(Haurra zutitzen da. Purti Berriz lurrera)**. Egin izkik⁶⁸ bi urrats, ikusteko! **(Ezin ditu zangoak mugitu eta berriz lurrera doa)**.

SENDAGILEA: Baina, baina....

Ama: Jainko maitea! Zer da, jauna? Nere haurra oso eri da?

SENDAGILEA: Emaztea! Ez duzu ikusten zer egin duzun?

Ama: Baina... Jauna, nik ez diot deus egin!

SENDAGILEA: Ez duzu ikusten, emazte gaisoa, bi zangoak gaitza zulo batek sartu dizkiozula? **(Amak bi eskuez burua hartzen du. Haurra zutitzen da, urrats bat egiten, berriz erortzen, oihala jausten ari delarik)**.

(67) Lerratu: irristatu, labaindu

(68) Egin zkit: iezaizkidak

ARANTXA, NESKA PANPINA

Donua: C'est le fils de la meunière.

Haurrak binaka, eskuak kurutzatuz elkarri emanaz.
Lerroan⁶⁹ batzuk besteen gibeletik⁷⁰. Koplakabestuz iriteten
dira, zango bat eta gero bestea jasoz. Lehen aldiz zango
eskubia eta gero ezkerre goratzen dute. «C'est le fils de la
meunière» abestia aurrean dutenak badakite nola egin.

Arantxa neska panpina,
Dantzari hoberena
Gorputza hain du liraina
urratsa hain arina.

Jauzi, jauzi, jauzi honera,
Jauzi, jauzi, jauzi harantz,
Jauzi, jauzi, jauzi honera,
Jauzi, jauzi, jauzi harantz.

Amak esaten badio
Ettxera joan agudo,
Lanak behar du amaitu
Eta gero dantzatu.

Jauzi, jauzi...

Arantxa, neska panpina,
Dantzari hoberena.

(69) Lerroan: sailean
(70) Gibeletik: atzeik

Amari esaten dio
Ez dut amai oraino.

Jauzi, jauzi...

Ari naiz kruxpet egiten,
Dio amak esaten.
Ez bazera laster joaten,
Katuak ditu jaten.

Jauzi, jauzi...

Arantxa neska panpina,
Kruxpet jale lehena.
Amak dei egin orduko
Etñera da sartuko.

Laster, laster, laster etxera!
Laster, laster, laster etxera! (Berriz)

**Oharra: Euskal doinu bat eman nahi duenak, ate leihoak
zabalik ditu abesti horrentzat.**

7

LAMINAREN EZKONTZA

(Seme bat bere amarekin. Lamin abeslari multzo bat.
Doinua: «Laminak lehen, laminak orain»).

ABESLARIAK:

Laminak lehen, laminak orain,
Laminek dugu bihotza alai.
Bihotza alai, begia arrai⁷¹
Laminek dugu abesten lasai.

Ama: Semetxo, ni zahartua naiz. Adinera heldu zara eta ezkondu
behar duzu.

SEMEA: Ama, nik ez dut emazterik ezagutzen. Nola nahi duzu
ezkon nadin?

Ama: Emazte gaiketara abiatu behar duzu.

SEMEA: Noratz?

Ama: Lehen gure arbasoen arbasoak Arzamendi gainean bizi
ziren. Ziur naiz haien askazian⁷² hatzemango duzula zuk
behar duzuna.

SEMEA: Zuk esana egingo dut, ama. (Ateratzen da).

(71) Arrai: zoriontsu, pozarren
(72) Askazian: ahaide, senitate

ABESLARIAK:

Arzamendi gainean baziren larrinak,
Langile xotil bezain adiskide onak.
Nola konta daitezke haiek egin lanak?
Egungo egunean⁷³ norantz dira joanak?

(Abestia amaitzean mutila sartzen da).

SEMEA: Ama, izan naiz Arzamendi gainean.

Ama: Ondo da, semetxo. Zer ikusi duzu han?

SEMEA:

Pottoka mulikka⁷⁴ eder mendiari
Txoriak hegazka zeruan kantari,
Ereak loreetan xurga-xurga ari,
Hostoak haizean alaiki dantzari.
Baino emazterik inon ez ageri.

Ama: Gauza anitz ikusi duzu. Gazteak badu beti zer ikasi
bideetan ibiliz.

SEMEA: Baina emaztea ez dut hatzeman bidean.

Ama: Ez etsi, semetxo. Joan zaitez Sarako harripera. Denboretan
bizi izan ziren han gure arbasoen arbasoak. Ziur naiz
haien askazian hatzemandago duzula zuk behar bezalako
emaztea.

SEMEA: Ondo da, ama.

Ama: Gibeleratekoan⁷⁵, geldi zaitez Senpereko gazteluan.

SEMEA: Senperen?

Ama: Ba, han ere gure arbasoak bizi izan ziren. Ikusiko duzu
izango dela norbait zure emazte gai.

(73) Egungo egunetan: gaurko egunean

(74) Mulikka: jauzika

(75) Gibeleratekoan: itzultzean, elixeratzean, ateratzekoan

SEMEA: Ondo da, ama. Zuk esana egingo dut. **(Ateratzen da).**

ABESLARIAK:

Lehengo denboretan Sarako harpean
Gure arbasoentzat omen zen etxea.
Euskal Herria zuten mugarik gabea.
Altamiran bazuten berdin ohantzea⁷⁶.

(Abestia amaitzean semea sartzen da).

SEMEA: Ama, izan naiz Sarako harripean.

Ama: Ondo da, seme. Zer ikusi duzu han?

SEMEA:

Sarako harpean, iluna denetan.
Zolapetik⁷⁷ ura xorta xorta zihnoan.
Gauenarak⁷⁸ zeuden zangoitik dilidan
Hontza ondoetan ari uhurian...
Emazterik ez zen harripe horretan.

Ama: Eta Senpereko gazteluan?

SEMEA:

Gazteluan, ama, zer ikusi dudan?
Huntz-hostoa⁷⁹ nasai, baster guztietan.
Ugari, dilindan, laparra⁸⁰ leihoetan.
Apoak goxoki, hango itzalpetan.
Baino emazterik ez zen sasi haietan
Kantu bat entzunda nago ikaretan.

Ama: Zer kantu, semetxo?

(76) Ohantze: ohea

(77) Zolapetik: zeru, kasko, uzategi, sapa

(78) Gauenarak: sagu zatorrak

(79) Huntza: ormei helduz hazten den landare bat

(80) Laparra: sasitza

ABESLARIAK:

Lehenago Senperen baziren laminak.
Batzuk ezin jasan⁸¹, zirelako sorginak,
Aitorren seme batzuk nonbaitikan jinak⁸²
han suntsitu zituzten, jauregian denak.

SEMEA: Kantu hori entzun eta, lasterka ines egin dut, beti emazterik gabe.

AMA: Egon lasai, semetxo. Lasterkausituko⁸³ duzu zuk beharra.
Errazegi eskuratzen dena ez da aski on erizten. Entzun amaren esana.

SEMEA: Ondo da.

AMA: Orain joanen zara Errobi alderat. Han ere bizi ziren gure arbasoak. Zure emaztegaia, behar bada, han da.

SEMEA: Zuk nahi duzuna egingo dut, ama. (**Kanporat doa**)

ABESLARIAK:

Lehenago Errobin baziren laminak
Dantzari ospetsuak bai eta arinak
ibai gainean gauaz ikusten zirenak
zein deabruk ote ditu egotzi⁸⁴ denak?

(**Abestia amaitzean semea sartzen da**).

SEMEA: Ama, Errobi ibaitik heldu naiz.

AMA: Ondo da, semetxo. Zer ikusi duzu?

SEMEA: Errobi ibaia nasai nasai zihuan

(81) **Jasan**: eraman, eutsi, sufitu

(82) **Nonbaitikan jinak**: edonondik etorriak, nonbaitetik joanak

(83) **Kausitu**: bilatu, idoro hartzeman

(84) **Egotzi**: jaurti, uxatu, iraitzi, botu, bidali

Amurrainak nasai, bere sabelean;
Mari-buruntza bat dantzan ur gainean,
Eguzki arraiak igeri uretan.
Emazterik ez zen Errobi ibaian.

AMA: Semetxo, lamin ona zera. Bidez bide zebiltzalarik, ama zutaz errukitu da. So egizu. (**Eskuakin txalo bat jotzen du eta andere lamin polit polit bat agertzen da**).

SEMEA: Nor da hori?

AMA: Donamartiriko harripeetan biziziren, lehen, gure arbasoen arbasoak. Han izan naiz haien askazia ikusten.

SEMEA: Errazu, ama. Errazu⁸⁵.

AMA: Lamin hau zure emaztea izateko sortua da. Harripe txoko batean zure beha⁸⁶ zegoen. Eman ezaiozu besoa, eta goazen denok pesta egitera. (**Lamin guztiak amaren gibeletik, besoz beso binaka, abestuz, taula⁸⁷ gainean itzuli bat egin ahal dute, atera gero, kantu errepeka denek abestuz**).

ABESLARIAK:

Laminek lehen, laminak orain,
Laminek dugu bihotza alai,
Bihotza alai, begia arrai,
Laminek dugu abesten lasai.

Oharra: Errepika hau eta «Lehenago Senperen» Senpereko «Laminak» abeslariak eginak dituzte bai eta ere abesti guztien doinua. Errepika salbu «Ai, ai, ai mutila» doinuan bertsu guztiak abesten ahal dira.

(85) **Errazu**: Esan ie zadazu

(86) **Zure beha, zure goait**: zure zain

(87) **Taula**: ola, egurra («escena»)

ENAUT ETA SAGUTXO

(Barne batean, mahain bat eta bi kadera⁸⁸. Mahain gaínean azpil batean gozoki xerra bat. Leího bat.)

AMONA: (Sartzen da, eskuahanka gaínean eta jartzen da). Atxi! Nere hezur zaharrek atsedén hartuko dute une bat jartzen banaiz. Lauretako kafea hartzeko tenorea⁸⁹ ere hurbildua ote da? (Leíhotik so). Eguzkiak zerrítegíko ertza jotzen duenean, tank! lauraki! Eta hala daízan ere. Nere sabel beltzak badakíela tenorearen berri. (Gozokíari so). Jes! Ondokústendut? (Hurbílduz). Ba, ba... Zálantzarik gabe... Lehentxoan bí gozokí xerra⁹⁰ bazíren hor, eta orain bat bakarrik. Enauten lana hori. Argia da!

ENAUT: (Berotua sartzen da, kopeta eskuaz lehortuz). Ufi! Amona! Nekatua naiz. Potzorekin nor lehenago aítu ízan naiz lasterkan.

AMONA: Bai, haurra... Nork irabazí du?

ENAUT: Beti Potzok, hori... (Kaderan jarri eta burua eskuetan). Ba, erraz irabazten du. Ase eta lo bízi da.

AMONA: Eta zu nekatua.

ENAUT: Ni gosetua nintzen.

(88) Kadera: jarlekua

(89) Tenorea: ordua, egoera

(90) Xerra: zaitítoa

AMONA: Ez duzu ondo jan eguerdian?

ENAUT: Bai... Baino amak ez dit gozoki puxka tipi-tipi bat baizik eman.

AMONA: Hori! Gozokia aipatzen duzu. Iruditzen zait zati bat gutxiago dela azpiblean⁹¹. Ziur naiz bi zirela eta orain bat besterik ez dut ikusten. Zer diozu hortaz?

ENAUT: Booo... Deus ere ez.

AMONA: Ziur zera deus ez dakizula?

ENAUT: Ba... Lehentxoan ikusi dut sagu buztan luze bat ate azpitik sartzen. Amona, zuk uste duzu hark jan duela gozokia?

AMONA: Nik bai al dakit, haurra. Uste duzu sagutxoaren lana dela hori?

ENAUT: Ba, ba... Ziur naiz. Andereinoak esana digu saguak gozoki oso zaleak direla.

AMONA: Zaude ixilik! Egundaino ez dut horrelakorik entzun. Beiti zerbait ikasten da bizian, berandu bada berandu.

ENAUT: Ba, goxokiak ere jaten omen dituzte.

AMONA: So egin ezazu, so egin ezazu...

ENAUT: Amona, gosetu naiz.

AMONA: Ez da harritzekoa, haurra, laurak dira. Salda pizka bat berotuko dizut berehala.

ENAUT: Amak ez dit sekulan saldarik ematen arratsaldeko askarian.

AMONA: Haurditu nahi baduzu, salda anitz jan behar duzu. Nahiago duzu ogi eta gazta?

ENAUT: Gaztak egarria ematen dit..

AMONA: Halo, ba. Ogia eta erreximeta⁹², beraz?

ENAUT: Andereinoak esan dit erreximetak hagineko mina ematen duela.

AMONA: Haur gaisoa! Nik ez dut beste deus zuri emateko.

ENAUT: Amona, gozoki xerra hori jango nuke gogotik...

AMONA: Gozoki xerra hori? Ez haurra, ez. Hori ez da zuretzako. Kutxan eduki behar dut ezaririk⁹³.

ENAUT: Norentzako, amona?

AMONA: Sagutxoarentzako.

ENAUT: (Harriturik). Sagutxoarentzako?

AMONA: Ba, ba. Sagutxoarentzako. Hain zale dela esan didazu eta poz hori eman nahi diot.

ENAUT: (Zinkurina, zotinka). Amona, emango ahal didazu gozokia... Zeren... sagutxoa ni nintzen.

Oharra: (Santurzin saritatu).

(91) **Azpila:** azita, platera

(92) **Erreximeta:** igali gozokia
(93) **Ezari:** ostendu, utzi, gorde

HAURRA ETA TXORIA

(Ikastolan haur multzo bat eta andereñoa).

ANDEREÑO: (**Eskuak joz**). Orain, arretaz denak ia zer esaten dudan. Bi eta bi, lau. Zuek orain.

HAURREK: Bi eta bi, lau.

ANDEREÑO: Lau eta lau, zortzi.

HAURREK: Lau eta lau, zortzi

ANDEREÑO: Zortzi eta zortzi, hamasei.

HAURRAK: Zortzi eta zortzi, hamasei.

ANDEREÑO: Zuri orain, Panpi. (**Panpi zuitzen da**).

PANPI: Bi eta bi, lau. Lau eta lau, zortzi. Zortzi eta zortzi, hamasei.

ANDEREÑO: Ondo da. Jarraituz. Orain zuri, Peio. (**Peio kanporea da. Ez da zutitzen**).

ANDEREÑO: Peio! Zuri mintzo naiz! Bi eta bi?

BEÑAT: (**Eria jasoz**⁹⁴). Nik badakit, andereño!

ANDEREÑO: Ez dizut zuri galdetzen, Peio!

Peio: Andereño! (**Leihoa erakutsiz**). Txoribatikusten dut zeruan dantzari.

(94) **Eria jasoz**: hatza altxatuz

ANDEREÑO: Nik berriř txoriburu bat ikusten dut hemen. (**Haurrek irri**).

Peio: Orain beste txori batzuk heldu dira hegaka. Txori bi eta txori bi...lau ikusten ditut zeruan.

ANDEREÑO: Ondo da. Lau eta lau?

MANEX: (**Hatza altxatuz**). Nik badakit, andereño!

ANDEREÑO: Ez dizut zuri galdetzen. Peio, lau eta lau?

Peio: Ez dakit, andereño. Txori guztiak hegatu dira.

ANDEREÑO: Nola ez dakizula? Zeri begira zaude? Katixa, zuk esango duzu zenbat egien duten lau eta lau.

KATIXA: Zortzi, andereño.

ANDEREÑO: Ikusten duzu, Peio. Denek zuk baino gehiago dakite.

Esan nere ondoik zenbat egien duten lau eta lau...

Peio: Lau eta lau, zortzi.

ANDEREÑO: Arretaz orain ia zer galdetzen dizudan: Zortzi eta zortzi?

Peio: (**Kanporantz so**). Andereño... Begira zer ikusten dudani!

ANDEREÑO: Erantzun, Peio. Zenbat dira zortzi eta zortzi?

Peio: Bi txori eta bi txori lau ziren. Ba... Orain, lau txori eta lau txori, zortzi ikusten ditut zeruan. Beste zortzi zuhaitzean kokatu dira...Hamasei, andereño!

ANDEREÑO: Ondo da. Nahi duzunean badakizu zenbatzen. Arretaz orain denek: Hamasei eta hamasei? (**Denak ixilik**).

ANDEREÑO: Hamasei eta hamasei, hogei ta hamabi dira. Zuek orain...

HAURREK: Hamasei eta hamasei, hogeiama bi dira. (**Peio kanporantz so dago**).

ANDEREÑO: Peio! Eman ezazu erantzuna! Hamasei eta hamasei..?

Peio: Ez dakit, andereño. Txori guztiak hegatu dira. (**Burua besoekin estaliz, nigarrez hasten da**).

HAUR GUZTIAK ABESTUZ:

(**Donua: Ikusten duzu, goizean..**)

Txoriak dira hegatu,
ezin bait ditu zenbatu
Gure Peio da gibeldu⁹⁵
Ez egin nigar, otoi laguna,
Hemen bait gera zurekin.
Lan egin eta gurekin
Denak gera elkarrekin
Jolastuko pozarekin.

Jacques Prévert-en «**Leçon d'écriture**»
olerkia irakurri eta egina.

(95) **Gibeldu**: tristatu, ilundu, murriztu

NOR DA ASTOKO?

(Mahai bat, bi kadera. Mahaiaren gainean, liburu bat idekia. Leino bat zabal zabal idekia).

AMA: (Leihotik kanpora begira). Katixa! Non zera, haurra?

KATIXA: (Leihotik entzuten da). Hemen, ama. Panpinarekin⁹⁶ jostatzen ari naiz.

AMA: Irakurtzen ikasteko tenorea da. Zatoz bamera.

KATIXA: Zaude pixka bat. Ez naiz oraidaino prest⁹⁷.

AMA: Zer, ez zarela gertu! Zatoz arin ona, ez baduzu nahi zahar⁹⁸ mehe batekin zangak nik berotzea.

PEIO: (Lasterka sartzen da). Ama, Xabik jo nau!

AMA: Baia, haurra. Eta zuk zer egin diozu?

PEIO: Bera hasi da lehen!

AMA: Ez dizut hori galdetzen. Zuk zer egin diozun jakin nahi dut.

PEIO: Nik ostiko bat eman, ordainez.

AMA: Horra... Beraz, kito. Zoazi Egizu pakea Xabirekin eta josta zaitetze hor gogo onean.

PEIO: Emango didazu gozoki bat adiskidetzeko?

(96) Panpina: nini, popina

(97) Prest: gertu

(98) Zaharo: adar, zigor, egur

Ama: Hori, hori. Zuretzat emango dizut gozoki bat eta beste bat lagunarentzako. **(Ematen dizkio)**. Baina, entzun. Ez zuk jan biak. Entzuten?

Peio: **(Zutik, eskua zabal besoa luzatuz)**. Horra, hitza emanai!

Ama: **(Irriz)**. Zoazi! Zoazi! Antzerlari! **(Peio ateratzen da. Ama leihoitik oihuka)**. Katixa! Erne bada, honai!

Katixa: Heldu naiz!

Ama: Neska sorginal! Zer lan irakurtzen ikasteko! **(Katixa sartzen da, pampina besoetan)**.

Katixa: Hara. Baina pampina lo dut eta ez nuke iratzar⁹⁹ erazi nahi.

Ama: Ezar ezazu ohean eta lo egongo da. **(Katixak ohean ezartzen du, abesti marmarrean)**. Bon... Jar zaitez hemen. **(Liburua zabalduz)**. Alzo hementxe gelditu ginen...!a gaur zer ondo aritzen zeran...

Katixa: Baina pampina iratzar eraziko dut!

Ama: Ez zaitezela anderearekin kezka. Zu baino perestuagoa da¹⁰⁰.

Katixa: **(Jartzen da)**. Bazeneki zertxori ederikusidudan zelaian.

Ama: Zurekin badut aski txori nik. Zer irakurtzen duzu hemen?

Katixa: **(Erantzunez)**. Ai-ta...A-ma...E-ne ai-ta, e-ne a-ma...Atxi! Kukuso batek horzkatu nau zangoan. Begira, ama.

Ama: **(Eskuarekin zangoa gozatuz, torratuz)**. Horra kukusoaren hortzakada sendatua. Zer da hau hemen?

Katixa: Za-ku-rra...ka-tu-a...Gu-re za-ku-rra e-ta gu-re ka-tu-a. To! Non da Pinto? Usaiatz, nirekin joaten da barnerati! Banoa non den ikusterat.

(99) Iratzar: erna, suspertu, alztartu

(100) Perestuago: zintzoago

Ama: Haurrai! Haserretuko naiz... Jarrai hemen aintzina¹⁰¹.
Katixa: Oi-lo-a... Tx-i-to-a... Oi-lo bel-tza-ren tx-i-to-a. Ama! Gure olio kokorak¹⁰² noiz izango ditu txitoak?

Ama: Zu bai zeu olio kokorai!

Katixa: Ikastolan ikasidut olio kokoraren olerkia. Ez dut ahantzi¹⁰³ Begira ezazu:

Amonaren olio gorriak
inguruan ditu txitoak,
Baditu hamabi, gaixoak.,
Bihia¹⁰⁴ ekarritz mokoan
denak bazkatzeko badu lan.
Eta beharko ditu zaindu:
Hantxe, barrandan¹⁰⁵, ikusten du
katua maltzurki dagoela,
Begiak lo baltz bezala,
nondik jango duen txitoa.
Baina beldur baita katua!
Olioak azkar du moko
Hobe du ihes joatea.
Gaur barau egin beharko,
Janaldia utziz biharko.

Ama: Biziki ondo. Baina irakurtzen ikasten baduzu, zeuk irakurriko dituzu ipui politikak liburutetan.

Katixa: Zertarako? Amonak esaten dizkit berdín ipui politikak!

Ama: Amonari neuk esango diot ez dezaizula gehiago ipui politik konta.

Katixa: Ez esan ezer, ama. Irakurtzen ikasiko dut ez badiozu ezer esaten.

(101) Jarrai aintzina: lehenari jarrai

(102) Kokora: loka

(103) Ahantzi: ahaztu

(104) Bihia: aiea

(105) Barrandan: zelatan, begira gogoz

Ama: Ikusiko dugu...

Katixa: E-txe-a... lei-hoa... a-te-à... Gu-re e-txe-ko a-te-a. ...

Peio: **(Lasterka sartzen da)**. Ama, beriz ere jo egin nau Xabiki!

Ama: Baia¹⁰⁶, haurra...

Peio: Sendatzeko nahi nuke beste gozoki bat...

Ama: Hori bera, Joanes-gezur. Ipurdian bi zarta ez badituzu nahi, atera zaitetz laster hemendik. **(Peio ateratzen da burua higituz¹⁰⁷ eta «bo-o-o» eginez)**.

Ama: Mutiko txarra, gezurra beti prest. **(Leihoan agertzen da Maria zahararen burua)**.

Maria: Arratsalde on..

Ama: Bai zuri ere, Maria. Non zabitx, horrela?

Maria: Elharan¹⁰⁸ izanik etxerako bidea hartu dut, hinkil-hankala, astoaren urratsean. Eta zuek zer ari zarete?

Ama: Hori bera, hementxe ari naiz haur hori irakurtzen erakutsi behar diodala eta. Oraingo egunean hori ere ez dute ikasten. Baina burua ez du lanean. Airean baizik, emaztekoa, airean!

Maria: Bizitzan ez badu ezinean bizi nahi, irakurtzen ikasi behar du. Zori hori izan bagenu egungo egunean¹⁰⁹ ez ginen egoera hontan izango. Sortu orduko lanean eta beti ezinean!

Ama: Baina horien adinean ez baita horrela pentsatzen. Esatearen indarrez sartuko ote da zerbaite txori buru honetan?

(106) Baia: egiltan, horrela al da

(107) Higitu: mugitu

(108) Elharan: igaran, errota

(109) Egungo egunean: gaurko egunean

Maria: Ba, gaztea da noski, oraindik, gaztea... Bo... Banoa. Iluna baino lehen behar nuke etxeratu. Izan ezazue gau on bat.

Ama: Bai, zuk ere, Maria. Egizu bide on. **(Maria badoa. Amak, burua eraginez, inarrosiz¹¹⁰)**. A, Maria gaisoa! Biziguztian mintzen alabarengatik!

Katixa: **(Bizi, bizi)**. Mariak ez du alabarik!

Ama: Bazuen bat, biziki polita. Bilo¹¹¹ urre margo kizkurtu batzuekin; zera bezain urdin zituen begiak.

Katixa: Nola zuen izena?

Ama: Beronika...

Katixa: Non da orain?

Ama: Beti amaren gibeletik dabil

Katixa: Ez dut sekulan ikusi.

Ama: Zer ikusten duzu beti Mariaren gibeletik?

Katixa: Astoa...

Ama: Astoa... Beronika da.

Katixa: Astoa Beronika?

Ama: Tipia zelarik ez zuen irakurtzen ikasi nahi. Egun batez, belarriak luzatu zitzaizkion... **(Katixak bere belarriak ukitzen ditu)**. Gero lau hankaz lasterka abiatu zen eta, azkenik, buztana irten eta asto bilakatu¹¹². Geroztik beti astoa da.

Katixa: Beronika gaisoa!

Ama: Eta gaisoa ere Maria!

(110) Inarrosiz: astinduz, higituz

(111) Bilo: ile

(112) Bilakatu: itzuli, bihurtu

KATIXA: Ama, nik nolako belariak ditut?

Ama: Belarri txiki polit batzuk.

KATIXA: Ez dira luzatzen hasiak?

Ama: Ez dut uste oraindaino. Baino geroxeago ez naiz batere ziur...

KATIXA: Nik ez badut irakurtzen ikasi nahi, asto biakatuko naiz?

Ama: Ni beldur baietz...

KATIXA: (Liburua berak hartuz). Begira ezazu, ama, zein ondo irakurtzen dudan orain. (Hastean baino askoz azkarrago). Aita, ama, ene aita, ene ama. Zakurra. Katua. (Oihala beheratzen da Katixa irakurtzen ari delarik.

«Ortzadar» Bilduma

1. Erromatarren Kolonizakuntza Euskal Herrian.
Koldo Larrañaga.
2. Erdi Aroko Jaureriak Euskal Herrian.
Julian Lucas de la Fuente.
3. Euskalduna Behoko Erdi Aroan. Giza jokabideak.
Jose Luis Orella.
4. Sabino de Arana Goiri (1865-1903). Sortzailea.
Jean-Claude Larronde.
5. Tomas Zumalakarregi. Gudalburua.
Junes Casenave-Harigile.
6. Bat, bi, hiru (Ekitaldi bakarreko Antzerkia).
Imanol Elias Odrizola.
7. Azken Brontze Aroa eta Burdin Aroa Euskal Herrian.
Carlos Olaetxea eta Xabier Peñaiver.
8. Natur Ibilialdiak. Negua.
Xabier Kintana.
9. Antzerkia Ikasetxean.
Marijane Minaberry.
10. Beloke-ko Abatetxearen Historia. Ehun Urte Jainkosemeen alde (1875-1975).
Xavier Diharce-Iratzeder.
11. Euskaldunen Historia Biologikoa.
Carmen Manzano eta Concha de la Rúa.
12. Euskal Prehistoriaren eta Etnografiaren Ikuspegiak.
Jesus Altuna.